



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25058 - Familiaren Psikologia

ECTS kredituak: 4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Familiaren Psikologia irakasgaiak, ikuspegi ekologiko, elkarrekintzazko eta sistemikotik ulertuta, informazio zientifiko eguneratua biltzen du familia-testuinguruak haur garapen psikologikoan (bere eremu kognitibo eta sozioemotionalan) duen eraginaren inguruan. Bere formaziozko helburu nagusia da ikasleek familia-testuinguru anitzetan ebaluatu eta esku hartu ahal izateko ezagutzazko eta ekitezko gaitasunak gara dezaten.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiaren berariazko gaitasunak

- 1 Famili testuinguruaren eta garapen psikologikoaren arteko erlazioak ezagutu.
- 2 Famili sistemaren atzera elikadura eta auto erregulazioak detektatzeko eta analizatzeko gai izan.
- 3 Famili testuinguruaren esku-hartze eskakizunak identifikatzeko gai izan.
- 4 Famili testuinguruak ebaluatzeko tresna espezifikoak erabiltzeko gai izan.
- 5 Garapen psikologikoa indartzeko helburuarekin, famili testuinguruak optimizatzeko esku-hartze estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izan.
- 6 Diziplinarteko taldeetan lan egiteko gai izan.
- 7 Ahozko zein idatzizko txostenak egiteko gai izan.
- 8 Famili esku-hartze arloan psikologoaren funtzio eta ardura etikoak ezagutu.
- 9 Familiaren psikologiako dokumentazio iturri desberdinak erabiltzeko eta informazioa lortzeko beharrezko estrategiak erabiltzeko gai izan.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

01. GAIA: Ikasketa objektua: familiaren antropologia, historia eta soziologia
02. GAIA: Famili testuinguru eta garapen psikologikoa: marko teorikoa
03. GAIA. GCO: Zeharkako aldagaiak
04. GAIA. GCO: Familia eta ezagutzaren eta hizkuntzaren garapena
05. GAIA. GCO: Familia eta garapen sozio-emozionala
06. GAIA. GCO: Familian, gizarte testuinguru eta ingurune fisikoa antolatzea
07. GAIA. Garapen psikologikoa famili egitura berrietan
08. GAIA. Hezkuntza disfuncionala: tratu txarrak, utzikeria eta gehiegikeria
09. GAIA: Ikerkuntza eta ebaluazioa famili testuinguruetan
10. GAIA: Esku-hartzea familia-testuinguruetan: gurasotasuna

METODOLOGIA

Gela praktiken, tailerren eta mintegien edukiak:

Mintegiak: Familia testuinguruaren ebaluazio tresna baten aplikazioa

Bideoak

Ebaluazio eta ikerketa tresnen aurkezpena

Programa praktikoa 8 gela praktika, 9 tailer eta 4 mintegi orduz osaturik dago.

Contenido de la práctica grupal dirigida:

Familia testuinguruaren ebaluazioa HEFAS eskalak aplikatuz:

- 1.go eta 2. mintegietan familia testuinguru erreala batean aplikatuko den eskala azaltzen da.
- Tutoretza orduetan irakaslearekin taldeka (4-6 kide) txostenaren inguruko zalantzak argitzeko.
- Txosten hau egiteko argibideak irakasgaiko egelan aurkitzen dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	24	4	8				9		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	36	6	12				13,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.



EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu.

Irakasgai honetan, deialdiari uko egiteko azterketara ez aurkeztea nahikoa izango da

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1. Irakasgaia ohiko deialdian gaitzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.
2. Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.
3. Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

Deialdiari uko egiteko, azterketara ez aurkeztea nahikoa izango da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

FAMILIAREN PSIKOLOGIAKO GIDA DIDAKTIKOA: e-gelan eta kopistegian eskuragai.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Arranz, E.; Olabarrieta, F.; Acha, J. eta Smith, K. (2015). *Psicología de la Familia: contexto familiar y desarrollo psicológico infantil*. Guía Didáctica. Donostia. Facultad de Psicología.

Rivas, S. y Beltramo, C. (2022). *Parentalidad positiva: una mirada a una nueva época*. Pirámide. (Contiene capítulo sobre fundamentos científicos de la P+ de Arranz-Freijo y Barreto-Zarza, F.)

Gehiago sakontzeko bibliografia

Arranz, E. (2004). *Familia y Desarrollo Psicológico*. Madrid: Pearson.

Arranz, E. y Oliva, A. (Coords.) (2010). *Desarrollo psicológico en las nuevas estructuras familiares*. Madrid: Pirámide.

Arranz-Freijo, E.B.; Barreto-Zarza, F.B.; Garcia Garcia, L.; Sánchez Pinedo, S.; Martínez de Lahidalga, A. (2021). *Descubre tu potencial para educar a tus hijas e hijos: un programa de parentalidad positiva, dirigido a familias con niñas y niños entre 0 y 3 años*. Zerbitzuan (en prensa)

Agirregoikoa, A., Acha, J., Barreto-Zarza, F., & Arranz-Freijo, E. B. (2021). Family Context Assessment to Promote Language and Reading Abilities in 6-Year-Old Children. *Education Sciences*, 11(1), 26.

Arranz-Freijo, E. B., Garcia-García, L., Itsamendi-Txurruka, A., Acha-Morcillo, J., Barreto-Zarza, F. B., Etxaniz-Aranzeta, A., ... & Roncallo-Andrade, C. P. (2021). *Bebés y pantallas digitales: una propuesta educativa audiovisual desde la parentalidad positiva*. *Educación social. Revista d'intervenció socioeducativa*, (77).

Rodrigo, M. J. eta Palacios, J. (2000). *Familia eta Giza Garapena*. Bilbo: UEU (Berrikuspen teknikoak: Fernando Olabarrieta).

Aldizkariak

Journal of Family Studies

Journal of Family Psychology

Early Child Development and Care.

Parenting Science & Practice

Interneteko helbide interesgarriak



• <http://www.ehu.es/haezi>: familiaren psikologian ikerkuntzan eta zerbitzuetan lan egiten duen taldea. Bertan aurki daitezke proiektuak, ikerketen argitalpenak, erakundeei eskainitako zerbitzuak, etab.

• www.etxadi.org: ETXADI Taldeak (Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa) UPV/EHUrekin elkarlan hitzarmena du.

• www.bilbao.net: familian haezi: (hazi eta hezi), Bilboko Udalaren Webgunean. Familientzako seme-alaben (0-18) hazkuntza eta hezkuntzarako materialak. Eskaintzen diren edukietan argi adierazten da taldearen ikuspegi teoriko-praktikoa: lehen mailako prebentzioa eta familia-testuingurua optimizatzea.

• <http://www.euskadi.net/gurasotasuna>: Eusko Jaurlaritzaren Webgunearen atalean, guraso izatearen alderdi positiboak lantzen dituen profesionalentzako zenbait baliabide aurki daitezke.

• <http://familiasenpositivo.org/>: Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna Ministeritzako Webgunea da. Familientzako zein profesionalentzako zenbait baliabide aurki daitezke.

OHARRAK

E-gelan materialen eta zehaztasunen berri.